



Nafarroa

OPOSAKETAREN INFORMAZIO GIDA

Kaixo adiskide!

Hainbat zirriborro gure eskuetatik pasa ondoren, eta behin betiko deialdia publikatu denez, oposaketan izena eman nahi duzuenontzat lagungarriak izan dakizkizuekeen kontu garrantzitsuenen gida hau prestatu dugu.

IZENA EMATEKO EPEA: OTSAILAK 18

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

1. INSTANTZIA:
 - a. Bakarra; parte hartze prozedura eta espezialitatea(k) zehaztuz.
 - b. INFORMEAREN aukera nahi duzula markatu.
2. NORTASUN AGIRIAREN KOPIA KONPULTSATUA.
3. ZINPEKO AGIRIA: Inhabilitaziorik eta zigor espedienterik ez duzula azalduz.
4. ORDAINKETA ZIURTAGIRIA: 25€ (edo 18€ LHn) espezialitate bakoitzeko.
5. TITULUAREN KOPIA KONPULTSATUA.
6. CAP-ren KOPIA KONPULTSATUA. Ondorengo baldintzak betetzen dituztenak ez daude CAP aurkeztera behartuak:
 - a. Maisu-maistra titulua ere badutenak.
 - b. Teknologia, Psikologia-Pedagogia, eta Lanbide Heziketako espezialitateetan izena eman nahi dutenak.
 - c. Bi ikasturte osotako edo eta ordezkapenen batura eginez 12 hilabeteko esperientzia (publiko zein konzertatuetan) zerbitzu orri bidez ziurtatu dezaketenak.
7. EGA edo antzeko agiria, euskarazko espezialitateetan izena eman nahi dutenek.
8. ZERBITZU ORRIA, B2 froga INFORMEarekin ordezkatu nahi dutenek. (Nafarroan lanean ari direnentzat Hezkuntza departamentuak *de oficio* emanen du).
9. MERITUEN ZIRTAGIRIEN KOPIA KONPULTSATUAK
 - a. Esperientzia (zerbitzu orria). "De oficio" Nafarroan lanean ari direnak.
 - b. Espediente akademikoa.
 - c. Titulazio gehiago: doktoretza, postgradoak, ikastaroak.
 - d. Publikazioak

INFORMEA

ESKATU AHAL IZATEKO BALDINTZAK

1. "Activo" egoeran (kontratupean alegia) edo eszedentzia berezian egotea deialdia argitaratu den egunean (2008ko urtarrilaren 28an).
2. Ikasturte honetan plaza berean hiru hilabetez lan egin izana. (Amatasun bajagatik baldintza hau betetzen ez dutenak, ekainaren 1 baino lehen bete beharko dute).

NORI EMAN UNITATE DIDAKTIKOA: Lanean ari zaren ikastetxeko Zuzendariari.

NOIZ ENTREGATU UNITATE DIDAKTIKOA: Behin betiko onartuen zerrenda argitaratzen denetik 5 egun ("día hábil" edo lan egun).

NORK OSATUKO DU BATZORDE "INFORME" EGILEA:

1. Zurei kastetxeko ZUZENDARIA.
2. Zure ikastetxea bere ardurapean duen IKUSKARIA.
3. Aurkeztu behar duzun espezialitateko zure ikastetxeko MINTEGI BURUA.

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>



Nafarroa

OPOSIZIO FASEAREN GARAPENA

AURKEZPEN EKITALDIA:

- EKAINAREN 16tik aurrera.
- Tribunalari PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA pertsonalki entregatzeko. (Gutxienez 10 Unitate Didaktiko aipatu beharko ditu, eta gehienez 50 DINA4 orriko tamaina)

A froga: TEORIKOA

- Bertan zoriaren arabera ateratako 5 gaietako baten idatzizko garapena.
- Gehienez 3 ordu izango ditugu ezagutza guztiak idazteko.
- Oposaketa fasearen %40 balioko du

B1 froga: PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN AURKEZPENA

- Ikasturte osoko programazioaren Tribunalari egin beharreko hitzezko azalpena.
- Gehienez 30 minutu iraun dezake gure aurkezpenak.

B2 froga: UNITATE DIDAKTIKO BATEN DEFENTSA

- Zoriaren arabera zure programaziotik hautatutako 3 unitate didaktikoetako baten tribunalaren aurreko aurkezpen eta defentsa.
- Ordu bat izango dugu prestatzeko eta geienez 30 minutu defentsarako.
- (*) Froga hau INFORMEArekin ordezkatu daiteke (baldintzapean noski).

B3 froga: PRAKTIKOA

- Froga hau ondorengo espezialitateek egin beharko dute: Lanbide Heziketako guztiak (FOL barne), Hizkuntza Eskoletako guztiak, Teknologiakoek, Musikakoek eta Gorputz Heziketakoek.

*B frogak oposaketa fasearen %60 balioko dute, haien artean pisu berdina dutelarik.
A, B1, B2 eta B3 frogak ez dira baztertzaille edo eliminatorioak izango.*

LEHIAKETA EDO KONKURSO FASEA

GARRANTZITSUA: *lehiaketa faseari dagozkion puntuak, oposizio fasea gainditu dutenei gehituko zaizkie soilik !*

OPOSIZIOA % 60	10 p	A – 4p	A – 4p
		B1 – 3p	B1 – 2p
		B2 – 3p	B2 – 2p
			B3 – 2p
KONKURSOA % 40	10 p	ESPERIENTZIA	gehienez 7p
		FORMAKUNTZA	gehienez 4p
		PUBLIKAZIOAK	gehienez 2p